

# ZURRUMURRUEN MEKANISMOAK *ARGELGO MAHAIAREN KASUA*

**Marian Gonzalez Abrisketa**

**Informazio eta Gizarte-Zientzietako Irakaslea**

Zurrumurruen fenomenora hurbiltzen saiatuko gara komunikazioren prozesuaren barruan gutxien ikertu egin den kasuren bat dela eta. Gure ustetan, edozein ekintza komunikatibo ulertzeko zurrumurruen mekanismoak ezagutzea derrigorrezkoa da.

Izan ere, iturburu ofizialek intenzionalki uzten duten hutsunea betetzen dute zurrumurruek. “Iturri ofiziala” kontzeptua nozio politiko delako eta gaiaren arabera erabakiko da nor den “autoritatea”. Egiatzatutako berriak sarritan faltsuak direlako –Golkoko gerra izan daiteke kasurik aipagarriena– eta askotan errealitatera hurbiltzen gaituztenak zurrumurruek dira.

Gure gizartean, gertaera politikoetan, Burtsako gertaeran, denak zurrumurruetan oinarrituta funtzionatzen du, eta aldi berean, beste zurrumurruek probokatzen duten informazioez estabilizatzen dira zurrumurruek. Hau dela eta, irakurleok zurrumurruen mekanismoak ezagutu beharko genituzke munduko gertaeren ikuspegi zorrotzagoa eta zabalagoa izan dezagun.

Dakigunez, komunikabideek gertaerak mundu naturaletik hartzen dituzte eta ezagutzera ematen dituzten heinean existitzen dira. Ordurarte, berauek sortu diren barruti mugatuari dagozkio soilik. Behintzat edozein komunikabidek hartzen ez dituen bitartean.

Dena dela, edozein gertaerak albiste massmediatikoaren estatutua lortzeko iturburu ofizial batek legitimatu behar du. Eta ekintza hau hain da inportante, ezen kazetariak ahalegin gehienak pasu horretan biltzen bait dituzte, hain zuzen ere.

Baina askotan iturri ofizialek ixiltzen dira edo eskuraezinak dira. Orduan, nola eman diezaioke janaria kazetariak aseazintasun informatiboari?

Nola erantzun diezaioke komunikabide batek, ekintza konkretu bat jarraitzeko irakurle goaren beharrari, ohizko ministroa bere bulegoan ez dagoela edo ohizko pertsonak telefonoa hartzen ez duela esaten badu?

Baina, zurrumurruak une horietan bakarrik sartzen dira komunikazio prozesura, ala fenomeno komunikatibo guztietan zurrumurrua berezkoa da?

Eta gainera kontutan hartzen badugu, egiaztatuko berriak askotan faltsuak direla, eta sarritan "egia" esaten dutenak zurrumurruak direla, zergatik kezkatu iturri ofizialez?

Zurrumurruek erabilpenak, mass-media definitzen du? Zurrumurruek erabilpenaren arabera komunikabidearen sailkapen bat egin al daiteke? Nola eraikitzen dira zurrumurruek? Adierazpenaren mailan, albiste ofiziletatik desberdintzen dira? Nortzuk dira aktoreak? Nola, noiz, eta zergatik jaiotzen eta hiltzen dira? Zein unetan sartzen dira esparru informatiboan?

---

### Argeleko kasua

---

Galdera hauek eta beste batzuek erantzuteko, zurrumurruek fenomeno egunkarietan aztertuko dugu. Horretarako, zurrumurruek kasu paradigmaticoen batetik korpus zehatz bat mugatu dugu, hain zuzen ere, Argeleko mahaiari buruzko albisteak prentsan.

Gaiaren aukerak arrazoi batzuek baditu. Lehenengo, garrantzi periodistikoaren gertakizun bat aipatzen duelako, zalantzarik gabe. Bigarren, Espainiako estatuko eta Euskadiko bizitza sozial eta politikoa aro garrantzitsua aurkezten bait du. Hirugarrenik, gertakizunak zurrumurruek fenomeno ernerazteko oinarritzko baldintzak betetzen dituelako: Alde batetik, garrantzi emozionala bere gizarte-eraginarekin, eta beste aldetik, edozein zurrumurruri datzekion baldintza: albisteen zalantzagarritasuna.

Sarritan, zurrumurrua albiste faltsu bezala mugatzen da. Hori bai dela faltsua. Zurrumurruek nozioa iturri

ofizialen legezkotasunarekin lotuta egon arren, horrek ez du esan nahi zurrumurrua/albiste ofiziala diko-tomiak gertaeraren egiatasuna inplikatzeko duenik.

Zentzu horretan, Gonzalo Abriek esaten du zurrumurruen nozioa lotuta dagoela kapitalismoaren erakunde informatiboaren agerpenarekin. Soziologok, psikosozilogok, eta abarrek, perspektiba hipokritaz, zurrumurrua informazioaren sare instituzionalaren asaldura edo perturbazioa dela ulertzen dute, eta bereziki sare instituzionalizatuak informazioaren legeko iturriak bezala. "Masa-komunikazioaren teknikoek zurrumurruen zirkulazioa distortsio bezala aurkezten dute, baina errealitatean komunikazioaren lehendar egiturari dagokio, eta bigarren forma besteak izango lirateke, hots, forma instituzionalak".

Zurrumurruaren edukia ez datza "albiste egiaztatua ala ez" izatean, baizik eta "iturri ez ofiziala" izatean. 1989ko urtarrilean egunkarrietan azaltzen diren Argeleko elkarrizketei buruzko berriak aztertuz gero, non ETAk eskaini bait zuen "tregua unilateral" zeritzona, zera ikusten da: kazetariak gobernuaren ixiltasunaren aurrean "altas fuentes gubernamentales", "fuentes próximas a ETA", "altas fuentes policiales", eta abar, erabiltzen dutela: hau da, iturriak ez direla zehazten, eta hortaz iturri ez-ofizialetara jotzen dutela.

Horregatik informazioak ez du faltsua izan behar, nahikoa da iturri

ofizial batek ez konfirmatzea, besterik gabe. Eta iturri ofizial batek ETA-Gobernuaren arteko kontaktuei berrekitea gezurtatuko balu ere, hipotesi hau egiaztatua izan dela eta beraz bestea ez-egiaztatutzat jo dezakegula, esan nahi al du horrek?

"Fuentes próximas a ETA afirman que a la reunión del pasado día 14 también asistió un representante del PSOE, aunque su portavoz, Ana Miranda, negó ayer oficialmente que ningún representante del partido, en cuanto tal, viajara a Argel". (EL PAIS, 1989ko urtarrilaren 24ean).

Hortaz, zurrumurrutzat zera ulertu dugu: gizarte-agerpen eta iturri ofizialek publikoki egiaztatu izan ez dituen, edota gezurtatutako (gizarte-eremuan) informazioaren agerpen eta zabalkuntzak. Bestalde, kontutan har dezagun iturri ofiziala nozio politikoa dela, eta kontsentsu batek gauzatzen duela; eta honek, gaiaren arabera, erabakiko du nor den "autoritatea".

Hortaz, Argeleko mahaiaren inguruko informazioak, zurrumurruaren fenomenoaz aztertzeko paradigmaticoak zaizkigu; zeren eta iturrien autoritatea aldakorra gertatzen bait da denbora epe labur batean.

ETAren aldetiko tregua eskaintza ostean, alderdi politikoen ordezkariak "iturri ofizialak" ziren, beraien alderdien jarrerak argitzen zituztelako. Alabaina, behin Argeleko negoziatioaren mahaia finkatuz gero, hitzegiteko iturri baimendu bakarrak elkarrizketakideak besterik ez ziren,

hau da, ETaren ordezkariak eta Gobernu espainiarrarenak. Ordezkaritza politikoen ahotsak iritzi huts baido ez ziren bihurtu, zeintzuek, kasu askotan, zurrumurru berriak sortzeko balio bait zuten.

---

### **Franco-Felipe Gonzalez**

---

Egiazkotasunaren gai honetan urrutirago joanik, semiotikako irakasle batek zurrumurruari buruzko mahain-guru batean, zera aldarrikatu zuen: edozein zurrumurru egiazkoa da. Hau demostratzeko, zenbait urte direla Felipe Gonzalez gobernuburuak eta Franco diktadorearen biloba baten arteko harremani buruzko zurrumurrua erabili zuen. Gonzalo Abril semiologoaren arabera zurrumurrurik bat zabaldua izan dadin ondokoa beharko genuke: a) elkarrizketakide zabalzaileen arteko konfidantzazko edo kontratu fiduziario askoren konkatena, b) zurrumurruren beraren sinesgarritasun egoera bat zenbait “kongruentzia kognoszitibo” asetzeko neurrian, c) presupostuen unibertsoa eta zurrumurruren giza inguruaren beraren espektatiben arteko adostasun-kopuru minimo bat.

Abril-en arabera zurrumurru bati egia ukatzeak zera adieraziko luke: zurrumurrurak kontatzen dituen gertaera eta datu objektiboen arteko egokitasun enpirikorik eza; bestela esanda, egiaren interpretazio positiboa. Baina zurrumurruren egiazkotasunaren beste kontzeptzio bat beste egia-erregimen baten menpean dago, ez antagonikoa

derrigorrez, baina gutxienez positibistaren osagarria den beste erregimena, sinbolikoa deritzona.

Hortaz, aipaturiko zurrumurrurak metaforikoki hitzegiten du edota operazio semantikoak barneratzen ditu. Berauen bidez errelatoak zenbait proposizio-modu narratibo, figuratibo eta ez-politikoan agertzen ditu, diskurtso politikoak edo periodistikoak aitzitik, modu argumentatibo, teoriko eta politikoa agertuko lukeenean. Abriek dioenez, “felipismo” edo “neofranquismo” kontzeptu beti ere abstraktuen artean, nolabaiteko lotura sinboliko bat legoke, une zehatz bateko hitzaldi periodistikoak eta diktadorearen ilobarekin maitaro presidentzialaren adiera narratiboak zabaldua.

---

### **Zurrumurruari buruzko ikerketaren garrantzia**

---

Ez dago zurrumurrurik gabeko politikarik ez eta gizarte bizitarik ere, zeren eta hauen funtsa, ikusi dugunez, albiste ofizialez eta diskurtso ofizialez aparte ibiltzea bait da. Zurrumurrua kontraboterea da, hortaz berezkoa da boterea sortzen den tokian bertan ugari izatea.

Gai honetaz eginiko Kapferer-en liburu urrietako baten arabera, zurrumurrurak abantaila asko ditu. Hasteko eta behin, agerian agertzea ekiditzen du. Besteok hitzegiten dute gure ordeztuaren eramale borondatezkoak nahiz ez-borondatezkoak.

Iturria eskuraezin eta misteriotsu suertatzen da. Inor ez da arduradun, baina edozein da jakitun. Zurrumurruek ez du frogarik behar, eta soziologoek argitu dutenaren arabera, eritzi publikoa ekintzez baino inpresioz eraikitzen da.

Zurrumurru politikoen azterketak adierazten digunez gai-kopuru urri batek aldagai (bariante) infinitua du. Kapferer-ek zazpita mugatzen ditu. Haien artean, aurrena esku izkutuarena dago; botere izkutu, boterearen harietatik tiratzen duen talde sekretua. Alderdi politikoen atzetik, garrantzizko gaien atzetik, esku izkutu bat dago, gizartearentzat interes ezezagunak dituen botere sekretua. Zurrumurru mota honetako biktimen eredu jesuitak, juduak, masoiak, eta abar izan dira.

Zurrumurru politikoen bigarren gaia akordio sekretuak dira. Egiatzotzat jotzen da lehiakide politikoen arteko itun pribatuak daudela, beraien jarrera publikoekiko kontraesan agerian. Edozein arrastok balio du zurrumurru bat sortzeko. Zergatik doa Rafael Vera Argelera alderdi sozialistak ETA militarrekiko negoziazioa arras ukatzen duen bitartean?

Lehiakideen arteko adostasun-gai honek Antzerkiaren mitoan du jatorria. Eszenatokian daudenean, hautagaiek burrukan eta irainka dihardutela, korridoreen artean, denek dakite, batak bestea gonbidatzen du afaltzera eta toki berberetan egoten dira elkarrekin.

---

## Interesguneak

---

Kontutan hartzeko beste datu bat zera da: eritzi publikoaren temperatura ezagutzeko termometro baliagarri direla. Zurrumurruek ugalketa nora, jendearen interesgunea hara. Beraz, zurrumurruek fenomeno komunika-zioaren prozesu inherentea da eta diskurtso massmediatikoekin batera doa.

---

## Taldetasuna

---

Zurrumurrua kohesio sozialaren oso lanabes eragilea da. Hauen bitartez, taldeak zer pentsatu behar dugun esaten digu, baldin eta taldekideak bagara. Zurrumurruarekin parte hartzea taldean parte hartzea ere bada. Zenbait ikerketen arabera taldekide izateak eragin handia du gure pentsamoldean. Batzutan geure ideien kontrakoak onartzera, eta geure konbikzioak zalantzan jartzera eramaten gaitu.

Normalean zurrumurruek gertaera errealtzat kaleratzen dira edota nolabaiteko autoritatea duen itxura batean. Nola hasten diren ikustea besterik ez dago: “Mi vecina que está muy enterada”.., “El jefe de policia mismo decía ayer”, “Lo sé de buena fuente”. Komunikabideetan sarri ikusten dira beste hauek: “Un alto mandatario..”, “Diversas fuentes”, “Fuentes bien informadas”, “Según varios testigos”, eta abar. Beste errekurtso bat litzateke gertaerak burutzen diren kaleak edo hiriak aipatzea, nolabaiteko sinesgarritasuna

ematen diolarik. Kokapen topografiko zehatz batek gertaera egiazkotzat jotzera gonbidatzen gaitu.

---

### ZEN plana

---

Baldin eta alde batetik, zurrumurruen zabalketa Gobernuentzat kaltegarri izan, ihaz Pekingo ikasle-matxinadako kasuetan ikusi genuen bezala, non zigor latzak ezarri bait ziren, askotxotan Gobernuek beraiek izaten dira teknika informatibo eta eskusartzaile edo manipulatzaile honen eragile.

Sarritan denuntziatu den kasu baten adibidea "ZEN PLAN"- delakoa dugu; berau Gobernu espaniarrak sortu zuen, Rafael Verak, Estatuko seguritatearen zuzendari orokorraren hitzetan "el problema del terrorismo" deritzana konpontzeko. ZEN planari buruz asko hitz egin denez gero, bakarrik "Servicio de contrainformación" delakoaren lanak aipatuko ditut. Haien artean "llevar a cabo acciones en los medios de comunicación social mediante difusión de noticias falsas, o el empleo de una semántica que no favorezca al grupo terrorista", etab. egongo ziren. Era berean, hauxe proposatzen da: "dificultar e impedir la publicación de noticias que sirvan de publicidad a los terroristas".

"Dar informaciones periódicas, a través de terceros –o potenciar las que surjan–, que difundan enfrentamientos... Basta que la Información sea creíble para explotarla". (PLAN

ZEN, febrero 1.983. Acción psicológica sobre la población, apdo. 4.1.2. Párrafo 16, pág. 67).

"Conseguir que la población (especialmente los familiares de los detenidos o presos) se convenzan de que los presos detenidos obtienen trato digno" (PLAN ZEN. Objetivo psicológico sobre la población, Apdo. 4.1.1. párrafo 3, pág. 63).

Plan honen egileek ez dute ahazten komunikatzailearen rola garrantzia: "En toda la acción que se realice con la población es necesario tener en cuenta que la credibilidad y la competencia del comunicador son dos características importantes para que la comunicación sea eficaz, puesto que si se toma como parte interesada, provocaría desconfianza en la información. Esto condiciona que se aprovechen las declaraciones de los líderes aceptados por el pueblo, para transmitir las ideas que aquí se expresan.." (PLAN ZEN. Acción psicológica sobre la población, Apd.. 4.1.2. introducción, págs. 63-64).

---

### Zurrumurrua komunikabideetan: Argeleko mahaiaren inguruko informazioa

---

Lehen ikusi dugun bezala, Argeleko kasua paradigmaticoa da zurrumurruren fenomeno aztertzeko. *Zurrumurruren psikologia* obran Allport eta Postmanek azaldutakoaren arabera zurrumurruren gaiak garrantzia izan behar du zabaltzaile

nahiz entzulearentzat, jendearengan eragina izan dezan eta zabal dadin.

Gainera, ekintza errealek zalantzarriak izan behar dute. Zalantzarritasun hau, aipatutako psikologoaren arabera, albisteen ausentzia edo laburtasuna izan daiteke. Bere izaera kontradiktorioagatik, zalantzarritasunaren jatorri ugari aipa daiteke: albisterik eza edo laburtasuna, albiste kontraesanezkoa, albistekiko mesfidantza edo bertsio ofizialetan jasotako egiteak onartzeko tentsio emozionalak behartutako gaitasun-falta.

Ikerlari hauen eritziz, oinarritzko baldintza hauek, garrantzia eta zalantzarritasuna, harreman zuzena dute kuantitatiboki zurrumurruaren transmisioarekin. Horregatik, zurrumurruaren intentsitatea neurtzeko formula bat atera dute.

$$Z = g \times z$$

Hau da, jendearentzat gaiak duen garrantzia (g) probaren zalantzarritasunaz (z) biderkatuz gero, zurrumurruaren kantitatea lortuko genuke (Z). Jakinik, noski, garrantzia eta zalantzarritasunaren arteko erlazioa ez dela gehikorra, biderkorra baizik: Garrantzia ala zalantzarritasuna berdin zero izanik ez bait legoke zurrumurrurik.

Euskadiko egunkariei ez zaie okurritzen euskal publikoari bost axola zaion gaiari buruz zurrumuru bat argitaratzea ez daukalako interesik jasotzaileentzat, zalantzarria izan

arren. Zalantzarritasunari dagokionez, nahiz eta norbaitentzat gaia garrantzitsua izan, honek gaiaren datu guztiak bere eskuan badauzka, nekez sinistuko du zurrumurruetan.

Horregatik zurrumurruek errazki eragin handia eduki dezakete irakurleagoarengan, zeren eta gertakizunen informazio zehatza gutxitan bait dauka eta munduan zer gertatzen den jakiteko komunikabideetara jo behar bait du.

Komunikazio-prozesuaren baitan agertzen den fenomeno honen adibide argia dugu Argeleko kasua. Gaiak garrantzi itzela du Espainiako Estatuaren eta euskal gizartearen orainaldi eta etorkizunerako. Baina komunikabideek ez daukate sarrera zuzena iturri ofizialetara eta gainera ezin dute lekukorik izan. Gogora dezagun ikasleen ihazko matxinada Pekinen. Nahiz eta kazetariak ezin zuten iturri ofizialekin hitzegin, gertaerak ikusi ahal izaten zituzten behintzat, Argelen gertatzen ez dena. Zentzu horretan, oso adierazgarria da El Pais-eko albistea irakurtzea, urtarrilaren 29an, hain zuzen ere (ETAren tregua unilateralen ostean):

"Los periodistas españoles desplazados para cubrir los contactos con ETA no han sido tan siquiera acreditados por el Ministerio de Información argelino. El argumento empleado es que no tiene sentido acreditar a informadores para 'una noticia que no existe' ".

Dudarik gabe, albiste massmedia-tikoaren definizio zehatza hartuz gero, hots: dagoen berri bakarra iturri ofizialak legitimatzen duena da, kasu honetan ez dago albisterik. Baina Argelen zer edo zer gertatzen ari delako zeinurik badago eta denotatzen duen objektuaren erizpi-deak finkaturiko zeinuaren tipologiari atxekituz, arrastoei (indize) bota diezaiekegu begirada. Zer da indizea? Indizeak, erakusten duen erreferentearekin lotura fisikoa duen zeinu bat da. Hots, objektua hor egon dela frogatu du, objektu baten hatza bezala.

Bestalde, zurrumurruak zundaldi (sondeo) bezala ere erabil daitezke: politiko batek bere hurrengo erabakiaren erreakzioak ezagutu nahi dituenean, zurrumurruak zundaldia egin dezala erabaki dezake. Zenbat aldiz hauteskunde aurreratuen zurrumurruak heldu zaizkigu, gasolinaren igoerarenak, eta abar?

Argeleko hizketa politikoen kasuan, galdetu behar dugu zergatik urtarrilean El Pais egunkariak gaiari buruz informazio berria askotan argitaratzen duen baina iturriak aipatu gabe. Beti erabiltzen du "altas fuentes gubernamentales", "fuentes policiales", eta abar. Kazetariak berriak asmatu zituzten edo Gobernuko alderdiari albiste batzu filtratzea interesatzen zaio zundaldi bat egiteko?

Teresa Toda kazetariak, iturri informatiboan fidagarritasun eskasa aipatzen zuen Egin-en salatzen zuenean:

"La lástima es que el interés informativo y el trabajo de numerosos periodistas se ve alterado en numerosas ocasiones por una tupida red de desinformación e intoxicación. Hay quienes juegan el juego conscientemente, hay quienes actúan de buena fe con datos que les son suministrados por las famosas "fuentes de toda confianza", sin contrastar después los datos con las personas u organismos afectados. Y hay, en fin, los "especialistas" en temas de Euskadi..." (Egin, 89-1-21).

Rosa Condek, Gobernuko bozeramaileak, gaiari buruz hitzegiten duenean honela dio soilik: "El Gobierno no informará acerca del lugar, las personas y el contenido de las conversaciones con ETA en Argel". Gainera, egun horretan, urtarrilaren 27an, bozeramaile berak oharterazten du nortzu izango diren iturri ofizialak.

"Rosa Conde añadió que las únicas fuentes que los medios de comunicación pueden citar como "oficiales, gubernamentales o fidedignas, serán única y exclusivamente el presidente del Gobierno, el vicepresidente, el ministro del Interior, el secretario de Estado de Seguridad y la propia ministro portavoz". Aseguró por tanto que, a su juicio, "cualquier persona que no sean éstas no pueden ser fuentes oficiales". (Egin, 89-1-28).

Hutsune informatibo ofizialaren aurrean ikusten dugun beste ezaugarri bat aipamena da. Egunkariak euren artean entengabe aipatzen dira. Hau da, informazio-putzua ez agortu nahian eta

informazioa legitimatzen duten iturburu ofizial delakoak ixten direnean besteren albisteak aipatzen dituzten berriak.

Kasurik nabarienetako bat gaur egun bizi izan dugun Golkoko gerrari buruzko informazioa da. Telebistaz ikusi behar genuen guerra, komunikabideen bitartez bizi behar genuen guerra, Golkoko ihauteri bilakatu da. Biktima-kopurua izkutatu egiten da, aktoreak mozorrotu egiten dira, bakoitzak bere papera asumitzen du gezurrak kontatzeko. Kasu honetan “Iturburu ofizial”-ak eurak dira gezurretan ari direnak.

Ikuslegoari, irakurlegoari, entzulegoari, halabeharrez komunikabideek esaten dutena berrinterpretatzea baino ez zaio geratzen. Legitimatutako iturburuen “egiak”, gatazkaren inguruan botatako zurrumurruekin konparatzen dira. Hemen ere, zurrumurruek hutsune informatiboa bete beharko dute eta era berean informazioaren sistema herdoildua urindatu.

Paolo Fabri semiologoak esaten duen bezala, gizarte-ekintza batzu solasaldietan daude, sailkapen sozial guztiak solasaldietan daude. Gehiago ikasiko dugu gizarte-solasaldiak ikertuz komunikabideak ikertuz baino.